



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 11

66. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena egin du, 2014ko ekitaldikoa.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Atarrabiako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (4. or.).
- III. Norainokoa (5. or.).
- IV. 2014ko kontu orokorrari buruzko iritzia (6. or.).
 - IV.1. Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra (7. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (7. or.).
 - IV.3. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2014-XII-31n (7. or.).
 - IV.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (10. or.).
 - IV.5. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila. (10. or.).
- V. Udalaren 2014ko kontu orokorraren laburpena (11. or.).
 - V.1. 2014ko aurrekontuaren betetzeari buruzko egoeraorria (11. or.).
 - V.2. 2014ko aurrekontu-emaizta (12. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2014ko abenduaren 31n (12. or.).
 - V.4. 2014ko abenduaren 31ko egoera-orriaren balantzea (13. or.).
 - V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua (14. or.).
- VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (15. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (15. or.).
 - VI.2. Langileak (16. or.).
 - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (17. or.).
 - VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (17. or.).
 - VI.5. Inbertsioak (18. or.).
 - VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (18. or.).
 - VI.7. Hirigintza (19. or.).

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Atarrabiako Udalaren 2014ko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Atarrabiako udalerrriak 1,1 km²-ko azalera du, eta 2014ko urtarrilaren 1ean, 10.211 biztanle dauzka.

2014ko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak, 2014	Aitortutako eskubideak (2014)	Langileak, 2014-12-31n
Udala	7.347.571	8.237.062	107

Udalak ez du ez erakunde autonomorik ez toki-enpresa publikorik.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri garraiokoak eta ibai parkearen kudeaketari dagozkionak. Mankomunitate horretako kide izatearen ondoriozko gastuak 243.874 eurokoak izan dira guztira 2014an.

Horrez gain, Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan eta Nafarroako Udal Informatikaren Elkartean (ANIMSA) parte hartzen du.

2010eko irailean, Atarrabiako eta Burlatako udalek Hilarión Eslava Musika Eskolako Partzuergoaren estatutuak onetsi zituzten. Atarrabiako Udalak eskola horren kudeaketan parte hartu du 2014an, 112.233 euroko ekarpenarekin.

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea, Partzuergoa	Zerbitzu kontratua	Errentamendua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X			
Etxe etxeko laguntza-zerbitzua	X			
0-3 urteko haur-eskolak	X			
Musika eskola		X		
Hirigintza			X	
Lorategiak	X			
Hiri-hondakinak		X		
Uraren ziklo integrala		X		
Garraio publikoa		X		
Liburutegia-ludoteka	X			
Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea, Partzuergoa	Zerbitzu kontratua	Errentamendua
Kaleen eta bideen mantentzea	X			
Kirolak (instalazioen kudeaketa)				X
Kirol-jardueren kudeaketa	X		X	
Udal kiroldegiak			X	
Babestutako enplegu soziala	X			
Diru-bilketa exekutiboa			X	
Familien arretarako zentroa	X			
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa	X			

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Entitatearen aurrekontua 2014ko otsailaren 26an onetsi zuen hasiera batez Udalaren Osoko Bilkurak. Alkatetzaren 2015eko uztailaren 28ko Ebazpenaren bidez onetsi zen 2014ko aurrekontuaren likidazioa.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2014ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpena. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Atarrabiako Udaleko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Atarrabiako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia/ondorioa agertzea:

- Ea Atarrabiako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

- 2014an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeria zenbateraino bete den.

- Udalaren finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n.

- 2014ko ekitaldirako aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea, eskuragarri dagoen informazioari jarraituz.

- Ganbera honek 2013ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA

Atarrabiako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Entitatearen beraren kontua: aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaiza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.
- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia eta zorraren egoera.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz gauzatu da; zehazki, honakoak aplikatu dira: "Fiskalizazio edo auditoria finantzarioaren oinarrizko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 200 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazio- edo auditoria-printzipio nagusiak" izeneko ISSAI-ES 400 araua. Inguruabarren eta azterlanaren helburuen arabera, beharrezkotzat jo ditugun hautaprobea edo prozedura tekniko guztiak aplikatu ditugu; prozedura horien artean laginen teknika edo kontusail edo eragiketa jakin hautatuak aztertzeko teknika erabili dira.

Zehazki, Udalari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarrizko prozedura administratiboak ere; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontroleko alderdi nagusiak aztertu dira.

IV. 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Atarrabiako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Alkatea da kontu orokorrak aurkezteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia eratortzen da, salbuespen bat ere baduena.

IV.1. UDALAREN 2014ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ekoa da eta ez da eguneratu, ez eta kontabilitatearekin bateratu; beraz, ezin izan da egoera-balantzearen "Ibilgetua" atalaren arrazoizkotasunaren ebidentzia lortu. Atal hori 35,6 milioikoa zen 2014ko abenduaren 31n (35,4 milioi 2013an).

Arestian aipatutako salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Gure iritziz, Udalaren 2014ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

IV.3. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2014-XII-31n

Udalaren hasierako aurrekontuak 7,79 milioi euroko gastuak eta diru-sarrerak dauzka. Hasierako aurreikuspenak, aurrekontu-aldaketaren bitartez, ehuneko zazpi handitu dira, hots, 0,4 milioi gehitu dira, inbertsioak egiteko eta finantzatzeko helburu nagusiarekin.

Aitortutako betebeharrak 7,34 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 90eko betetze-maila izan dute. Portzentaje hori atera da aktiboen aldaketaren kapituluak diruzaintza-gerakin negatiboa erantsi diolako aurrekontuari; gerakin horrek, jakina, ez du aurrekontu-betetzetik.

Aitortutako eskubideek 8,24 milioi egiten dute, ehuneko 88ko betetze-mailarekin; ehuneko hori azal daiteke, funtsean, diru-sarrera arruntetan izandako betetze-mailarengatik –ehuneko 100etik gorakoa–, eta inbertsio errealeen besterentzeen kapituluak, 0,2 milioiko aurreikuspenekin, ez duelako aurrekontu-betetzetik.

Gastuen izaerari begiratuz gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 93 eta ehuneko 35 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehuneko 98 dira; diru-sarrera horien ehuneko 48 jasotako transferentzietatik datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili diren eta nola finantzatu den Udalaren gastuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera		Finantzabidea	
Langileak	60	Tributu bidezko diru-sarrerak	49
Bestelako gastu arruntak	32	Transferentziak	48
Kapital-eragiketak	2	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	2
Finantza-zama	6	Zorduntzea	1
Guztira	100	Guztira	100

Hona Udalaren 2014rako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2013koarekiko alderaketa:

	2014	2013	Aldea (%), 2014/2013
Aitortutako betebeharrak, guztira	7.347.571	8.074.056	-9
Betebehar ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	6.962.905	7.683.122	-9
Likidatutako eskubideak, guztira	8.237.062	8.356.113	-1
Eskubide ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	8.132.062	8.261.113	-2
Gastuen betetzea (%)	90	85	
Diru-sarreraren betetzea (%)	100	88	
Ordainketak (%)	95	89	
Kobratutakoa (%)	89	93	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	6.828.912	7.069.478	-3
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	6.760.853	6.991.765	-3
Inbertsioetan egindako gastuak (6. eta 7. kapituluak)	133.993	613.644	-78
Kapital-gastuak eta finantza-eragiketenak (6.etik 9.era)	518.659	1.004.578	-48
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	8.105.662	8.005.075	1
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	4.023.708	3.836.920	5
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketenak (6.etik 9.era)	131.400	351.038	-63
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	48	51	
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	59	54	
Saldo ez-finantzarioa	1.169.157	577.991	202
Aurrekontu-emaizta doituak	803.322	415.508	93
Aurrezki gordina	1.344.809	1.013.310	33
Finantza-zama (3.etik 9.era)	452.725	468.286	-3
Aurrezki garbia	892.084	545.024	64
Zorpetze maila (%)	5,6	5,85	
Zorpetze muga (%)	16,6	12,66	
Zorpetze-ahalmena (%)	11	6,81	
Diruzaintza-gerakina, guztira	967.627	223.242	333
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	808.127	149.911	439
Zor bizia	3.161.341	3.441.007	-8
Diru-sarrera arruntaren gaineko zor bizia (%)	39	43	
Zor bizia biztanleko	310	334	-7
Finantza-zama / Diru-sarrera arruntak (%)	6	6	
Zor bizia / Aurrezki gordina	2	3	

2014an, Udalak ehuneko 6 gutxiago gastatu du aurreko ekitaldian baino –hau da, 726.485 milioi gutxiago–, eta haren diru-sarrerak 2013an baino ehuneko bat txikiagoak izan dira.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko hiruko beherapena izan da; diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko bat egin dute gora. Gastu arruntaren jaitziera kapitulu guztietan gertatzen da, transferentzia arruntenean izan ezik.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioak ehuneko 202 egin du gora, eta aurrekontu-emaizta doituak, berriz, ehuneko 93 egin du gora.

2014an aurrezki gordina ehuneko 33 hazi da aurreko ekitaldikoaren aldean, ezarri diren austeritate neurrien ondorioz. Aurrezki garbiak ere ehuneko 64 egin du gora.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko 5,6koa da, nahiz eta bere muga ehuneko 16,6 izan; ondorioz, zorpetze berria bereganatzeko ehuneko 11ko ahalmen ekonomikoa du.

Diruzaintza-gerakinaren guztizko zenbatekoa positiboa da, 967.627 eurokoa, 2014an, eta 223.242 eurokoa izan da 2013an. Gastu orokorren zenbatekoak nabarmen egin du gora. Hona hemen azken magnitude horrek azken urteetan izandako bilakaera:

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Kopurua	-1.326.260	-1.525.987	-1.436.087	-165.628	149.911	808.127

Taulan ikusten den bezala, 2014an gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak nabarmen egin du gora 2013koaren aldean.

Epe luzeko zorra 3,16 milioikoa da, eta ehuneko zortzi egin du behera 2013koarekin alderatuta; zor hori –biztanle bakoitzeko 310 eurokoa dena, guztira– entitatearen diru-sarrerara arruntaren guztizkoaren ehuneko 39 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Atarrabiako Udalak 2006-2014 aldian honako bilakaera izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

Aitortutako eskubide garbiak, 2006-2014

Kapitulua	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Zuzeneko zergak	2.699.409	2.347.357	1.974.811	2.379.169	2.365.708	2.442.820	2.416.640	2.689.868	3.064.923
Zeharkako zergak	247.521	165.163	256.483	51.244	121.712	238.939	321.295	164.424	65.665
Tasak eta prezio publikoak	944.772	902.856	954.002	856.417	856.127	924.334	878.374	982.627	893.120
Transferentzia arruntak	3.698.708	3.819.374	4.138.550	4.279.944	4.271.987	4.086.273	4.042.524	4.031.876	3.943.852
Ondare bidezko diru-sarrerak	82.604	114.877	98.440	179.867	129.032	133.975	135.860	136.279	138.102
Kapital-transferentziak	654.132	457.571	1.419.803	4.554.185	2.758.754	563.266	168.872	256.038	26.400
Finantza-pasiboak		600.000	700.000				800.000	95.000	105.000
Diru-sarrerak, guztira	8.327.146	8.407.198	9.542.089	12.300.826	10.503.320	8.389.607	8.763.565	8.356.112	8.237.062

2006-2014 epean aitortutako betebeharrak garbiak

Kapitulua	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Langileak	4.000.762	3.996.864	4.374.125	4.569.994	4.566.293	4.481.340	4.445.875	4.452.204	4.397.939
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	1.840.457	2.201.101	2.336.606	2.325.846	2.128.795	1.972.135	1.918.646	2.033.683	1.820.548
Finantza-gastuak	138.588	169.420	181.450	89.802	59.259	61.958	57.827	77.713	68.059
Transferentzia arruntak	387.494	465.283	467.363	455.055	465.715	546.706	491.406	505.878	542.366
Inbertsioak	1.426.949	1.450.891	3.247.700	5.192.326	2.703.764	606.475	469.965	613.644	119.299
Kapital-transferentziak	0	0	0	64.024	0	98.757	0	0	14.694
Finantza-aktiboak	0	0	0	0	1.800	0	25.000	361	0
Finantza-pasiboak	353.891	355.849	318.876	366.810	409.120	438.018	336.162	390.574	384.666
Gastuak, guztira	8.148.141	8.639.408	10.926.120	13.063.857	10.334.746	8.205.389	7.744.881	8.074.057	7.347.571

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, 2008tik 2010era bitarteko urteetan, inbertsio-prozesu nabarmena gertatzen da, eta urte horretatik aurrera gastu korranteak gutxitzen dira eta inbertsioak nabarmen beheratzen dira.

Diru-sarrerei dagokienez, ikusten da kapital-transferentziek garrantzia hartzen dutela inbertsio handienak egiten diren urteetan, eta zuzeneko zergek etengabe gora egiten dutela.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da 2011tik 2014ra.

Adierazlea	2011	2014	Aldea (%), 2014/2011
Zorpetze ahalmena	% 4,17	% 11	164
Biztanle bakoitzeko kapital-eragiketak	67 €	13 €	-81
Gastu arrunta biztanleko	673 €	669 €	-1
Tributu diru-sarrerak biztanleko	344 €	394 €	15

Ikus daitekeen bezala, 2011tik 2014ra gastu korronteari eutsi zaio, inbertsioak beheratu dira eta nabarmen handitu da zorpetze-ahalmena.

Azken batean, ikusten da Udalaren adierazle ekonomikoek hobera egin dutela.

IV. 4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den aztertu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean eta urrian horretarako eman dituen gidez baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	1.169.157
Doikuntzak	-411.530
Finantzatzeko ahalmena	757.627

Udalak aurrekontu-egonkortasunaren baldintza betetzen du, bai eta gastuaren araua ere, zeren eta egoztekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2013an, ehuneko 1,5 egin zuen gora); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du.

Hornitzaileei ordaintzeko epeari dagokionez, 2015ean ordainketa-epea ezagutzea bideratzen duen tresna informatiko bat ezarri da.

IV.5. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Ganbera honen 2013ko ekitaldiko txostenari dagokionez, garrantzizko aholku hauek oraindik gauzatzeko daude, txosten honen VI. atalean berresten den bezala:

- *Indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen epeen barruan onartzea aurrekontua.*
- *Udal inbentarioa eguneratzea eta onestea.*
- *Finantzen egoera-orriak osatzen dituen beste egoera-orri bat balitz bezala osatzea oroitidazkia, garrantzizko informazio guztia sartuta.*
- *Diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra edo diru-laguntzen modalitateetarako ordenantza berriazkoak onestea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentario eta erregistro independentea onartzea.*

V. UDALAREN 2014ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren azaltzen dira 2014ko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak.

V.1. 2014ko AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO EGOERAORRIA**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	4.572.236	0	4.572.236	4.397.939	96	4.325.414	98	72.525
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	1.934.401	88.738	2.023.139	1.820.548	90	1.574.804	87	245.744
3. Finantza-gastuak	77.762	0	77.762	68.059	88	68.059	100	0
4. Transferentzia arruntak	607.209	17324	624.533	542.366	87	384.038	71	158.328
6. Inbertsio errealak	52.200	271.311	323.511	119.299	37	109.975	92	9.324
7. Kapital transferentziak		18.317	18.317	14.694	80	14.694	100	0
8. Finantza-aktiboak	165.628	0	165.628	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	384.881	0	384.881	384.666	100	384.666	100	0
Guztira	7.794.317	395.690	8.190.007	7.347.571	90	6.961.650	95	385.921

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	obrantsak	Kobratutakoa, %	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	2.551.882	13.000	2.564.882	3.064.923	119	2.496.865	81	568.058
2. Zeharkako zergak	96.000	30.000	126.000	65.665	52	58.769	89	6.896
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	841.546	42.170	883.716	893.120	101	851.593	95	41.527
4. Transferentzia arruntak	3.963.660	21.831	3.985.491	3.943.852	99	3.808.265	97	135.587
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	135.602	0	135.602	138.102	102	7.098	5	131.004
6. Inbertsio errealen besterentzea	205.628	0	205.628	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	0	6.000	6.000	26.400	440	26.400	100	0
8. Finantza-aktiboak	0	177.688	177.688	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	105.000	105.000	105.000	100	105.000	100	0
Guztira	7.794.317	395.690	8.190.007	8.237.062	101	7.353.990	89	883.072

V.2. 2014ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2014	2013
+ Aitortutako eskubideak	8.237.062	8.356.113
- Aitortutako betebeharrak	7.347.571	8.074.056
= Aurrekontu-emitza	889.491	282.057
Doikuntzak		
- Finantzetaren desbideratze positiboak	123.225	0
+ Finantzetaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzatutako gastuak - Erantsitakoa	37.057	133.451
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
= Aurrekontu-emitza doituia	803.322	415.508

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2014ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2014	2013
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1069.572	690.864
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	884.262	614.940
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	1.192.538	953.563
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	85.942	53.390
(+) Ordainketen itzulketa	9.928	1.462
(-) Bilketa zaileko eskubideak	1.037.715	876.606
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	65.384	55.884
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	868.619	1.096.852
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	485.921	864.832
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	151.266	8.014
(+) Diru-sarreraren itzulketak	1.372	182
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	4.729	4.729
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	234.789	228.554
(+) Diruzaintzako funts likidoak	766.673	629.229
(+) Finantzetaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	967.627	223.242
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	18.225	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	141.275	73.331
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	808.127	149.911

V.4. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-ORRIAREN BALANTZEA

Aktiboa

Deskribapena	2014	2013
A. Ibilgetua	35.558.230	35.438.931
1. Ibilgetu materiala	26.847.290	26.734.388
2. Ibilgetu ez-materiala	1.355.111	1.355.111
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	7.327.784	7.321.387
4. Herri-ondasunak	1.578	1.578
5. Finantza-ibilgetua	26.468	26.468
C. Zirkulatuzailea	2.946.236	2.259.476
8. Zordunak	2.172.671	1.623.355
9. Finantza-kontuak	773.565	636.121
Aktiboa, guztira	38.504.467	37.698.407

Pasiboa

Deskribapena	2014	2013
A Funts berekiak	34.404.393	33.099.936
1. Ondarea eta erreserbak	17.614.760	16.713.701
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	1.278.058	901.059
3. Kapitaleko diru-laguntzak	15.511.576	15.485.176
C. Epe luzeko hartzekodunak	3.161.341	3.441.006
4. Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	3.161.341	3.441.006
D Epe laburreko hartzekodunak	938.732	1.157.465
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	873.348	1.101.581
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	65.384	55.884
Pasiboa, guztira	38.504.467	37.698.407

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Amaierako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	474.211	492.270
61 Langile-gastuak	4.398.934	4.452.690	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	509.437	519.724
62 Finantza-gastuak	68.059	77.713	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.949.945	2.150.197
63 Tributuak	0	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	511.468	509.096
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	1.819.552	2.033.197			
65 Gizarte prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	3.943.852	4.031.876
67 Transferentzia arruntak	542.366	505.878	77 Kapitalaren gaineko zergak	669.176	195.000
68 Kapital-transferentziak	14.694	0	78 Bestelako diru-sarrerak	47.573	106.913
69 Amortizazio eta horniduretarako zuzkidurak	0	0	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (Saldo hartzekoduna)	1.262.056	935.598	Ekitaldiko emaitza arrunta (Saldo zorduna)	0	0
Guztira	8.105.662	8.005.075	Guztira	8.105.662	8.005.075

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	1.262.056	935.598
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	-16.002	34.538	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	1.278.058	901.059	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira	1.262.056	935.598	Guztira	1.262.056	935.598

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkatuz, Ganberaren iritziz Udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio eta iruzkin nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Aurrekontua 2014ko otsailaren 26an onetsi zen.
- Udalaren inbentarioa, zeina 1995ekoa baita, gaurkotzeko eta onesteko dago.
- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2014ko fakturarik, 2015eko aurrekontuari egotzi zaionik.
- Ezin izan dugu egiaztatu 2014an hornitzaileei ordaintzeko epea, zeren eta tresna informatikoak horretarako bidea ez baitu ematen. Tresna informatikoa 2015eko apirilean ezarri da. Horrek aukera eman du jakiteko Udalak zein epetan ordaintzen dituen bere gain hartutako betebeharrak.
- Atzemanda 2014a baino lehenagoko ekitaldi itxietatik ordaintzeko dauden fakturak badaudela: 89.294,51 euro egiten dute. 2014ko likidazio-espeditari buruzko txostenaren arabera, "itxitako ekitaldietatik egiten diren ordainketa guztiak aurreko ekitaldiarenak izaten dira".
- Atxikitze-poltsa batzuetan bildutako gastuetarako kredituen muga-izaera ez da beti errespetatu izan.
- Aurrekontuz kanpoko eragiketen saldo zaharrak aztertu eta, behar izanez gero, erregularizatu egin behar dira.
- Honako hau da epe luzeko zorra amortizatzeko egutegia, 2014ko abenduaren 31n:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2015	407.600	13	13
2016-2020	1.625.146	51	64
2021-2025	958.162	30	95
2026-2030	169.692	5	100
Guztira	3.160.600	100	-

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 4,40 milioi eurokoa da; hau da, 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 60 eta gastu arrunten ehuneko 64.

2013ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu hau berdintsu mantendu da, honako xehetasun hauen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Ehunekoa Aldea
	2014	2013	
Goi-karguak	112.500	115.028	-2
Langile finkoak	2.505.742	2.548.028	-2
Aldi baterako lan-kontratudunak	298.474	249.337	20
Gizarte-zamak	1.481.222	1.474.718	0
Bestelako langileak	0	10.566	-100
1. kapitulua, guztira	4.397.939	4.452.204	-1

Udalbatzak 2014ko otsailaren 26an onartu zuen 2014ko plantilla organikoa, non 107 lanpostu baitaude jasota, ondoko taula hauetan erakusten den bezala banatuta:

	Lanpostuen kopurua	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	67	57	3	7
Lan-kontratudunak	40	19	2	19
Guztira	107	76	5	26

Udaleko langileak arlo hauei atxikita daude:

Arloak	Kopurua
Kultura Zerbitzua	1
Ikastetxeak	11
Amalur haur-eskola	26
Udal eraikinen garbiketa	2
Obrak eta zerbitzuak	14
Bulegoak	12
Udaltzaingoa	20
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	16
Udalaren Kirol Zerbitzua	5
Guztira	107

2014an, mantentze-lanetarako elektrikari ofizial baten lanpostu baten kontratazio prozedura aztertu da. Kontrolaren emaitza da prozedura hori zuzena izan dela.

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela, ordaindutako ordainsariak ezarritako ordainsari-taularen arabera direla eta egindako atxikipean zuzenak direla. Ordainsariek izoztuta jarraitzen dute 2010etik.

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 1,82 milioi euro egin dute 2014ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 25 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 27 egiten dute. 2013. urtearen aldean, ehuneko 10 jaitsi dira.

2014an egindako honako kontratazio-espeditente hau berrikusi da:

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa
Laguntza administratiboko lanetarako laguntza teknikoa Atarriabiako Udalean	Zerbitzuak	Publizitaterik gabe negoziatua	60.000	2	60.000

Egindako azterketaren ondorioz, espeditenteak, oro har, araudi indardunari jarraituz izapidetu direla egiaztatzen da.

Hala eta guztiz ere, kapitulu honetako gastuen lagin bat aztertu da, eta ikusi da ez dela kontratuen indarraldiaren kontrol eta jarraipen zorrotzik egiten. Kontratuetakoa bat 1997. urtetik luza-tzen ari da. Adierazi digutenaren arabera, 2016ko ekitaldian zehar kontratu hori lizitatu nahi da.

Gomendatzen dugu kontratuen indarraldiari buruzko kontrol eta jarraipen zorrotza egitea.

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Horrelako gastuek 0,5 milioi egin dute, eta 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 7 dira.

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%) 2014/2013
	2014	2013	
Foru Komunitateko Administrazio Orokorrari	1.547	2.138	-28
Mankomunitateei	208.757	193.157	8
Batasun tradizionaleri eta bekei	6.904	5.998	15
Partzuergoei	35.117	33.517	5
Familiei	50.352	50.917	-1
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	126.927	112.102	13
Bestelako transferentzietan	82.763	73.049	13
Kanporako	30.000	35.000	-14
Guztira	542.366	505.878	7

2013. urtearen aldean, gastu horiek ehuneko zazpi igo dira.

Honakoak dira 2014an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Onuraduna	Kopurua
Garraiorako Mankomunitatea	208.757
Hilarión Eslava Musika Eskola	112.233

Egindako lanaren arabera, nabarmendu nahi dugu Udalak ez duela diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorrik, ezta, oro har, diru-laguntzen modalitateetarako ordenantza berezirik; diru-laguntzak, beraz, Alkatetzaren / zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez edo hitzarmen bidez arautzen dira.

Diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra edo diru-laguntzen modalitateetarako ordenantza berariazkoak onestea gomendatzen dugu.

VI.5. INBERTSIOAK

2014. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (323.511 euro) ehuneko 37 bete da, eta 119.299 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldirako aitortutako betebeharrak guztien ehuneko hiru.

2013ko ekitaldiaren aldean, inbertsioek ehuneko 81 egin dute behera.

Honakoak izan dira 2014an egindako inbertsio nagusiak (BEZik gabeko zenbatekoak):

Inbertsioa	Kopurua
Udaletxeko atalondoa isolatzea	11.585
Uholdeen ondoriozko konponketa-lanak	30.625
Kiroldegiko estalkia zaharberritzea	18.508

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa
Arotzerian, margo-lanetan eta estalgarrietan uholdeen ondorioz izandako kalteak konpontzeko lanak	Obrak	Publizitaterik gabe negoziatua	29.077	3	26.500
Indurain Anaiak kiroldegiko estalduran zaharberritze-lanak egitea	Obrak	Publizitaterik gabe negoziatua	16.564	2	16.066

Egindako azterketaren ondorioz, espeditenteak, oro har, araudi indardunari jarraituz izapidetu direla egiaztatu da.

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2014ko ekitaldian aitortutako eskubideen zenbatekoa 8,24 milioikoa izan da. Ehuneko 98 eragiketa arrunten bidezko diru-sarrerari dagokio; horietatik tributu bidezko diru-sarrerak 4,02 milioi eurokoak dira eta transferentzia arruntak, berriz, 3,94 milioi eurokoak.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 101ekoa izan da.

Ez dago hirigintzako eragiketen bidezko diru-sarrera nabarmenik.

2013. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 1 murriztu dira. Hona zehatz-mehatz:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2014/2013
	2014	2013	
1. Zuzeneko zergak	3.064.923	2.689.868	% 14
2. Zeharkako zergak	65.665	164.424	% -60
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	893.120	982.627	% -9
4. Transferentzia arruntak	3.943.852	4.031.876	% -2
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	138.102	136.279	% 1
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	8.105.662	8.005.075	% 1
6. Inbertsioen besterentzea	0	0	
7. Kapital-transferentziak	26.400	256.038	% -90
8. Finantza-aktiboak	0	0	
9. Finantza-pasiboak	105.000	95.000	% 11
Kapital-sarrerak eta finantza-eragiketenak (6. kapitulutik 9.era)	131.400	351.038	% -63
Diru-sarrerak, guztira	8.237.062	8.356.113	% -1

Hurrengo taulan udal zerga bakoitzeko aitortu diren eskubideen bilakaera erakusten dugu:

Diru-sarrereren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2014/2013
	2014	2013	
Lurraren kontribuzioa	1.689.104	1.706.260	-1
Ibilgailuak	511.468	509.096	0
Lurren balio-gehikuntza	669.176	195.000	243
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	195.175	279.512	-30
EIOZa	65.665	164.424	-60
Guztira	3.130.588	2.854.292	10

Antzematen diren alde nagusiak dira lursailen balioari dagokiona, zeinak ehuneko 243 egin baitu gora, eta EIOZari eta JEZari dagokiena, zeinek ehuneko 60 eta ehuneko 30 egin baitute behera, hurrenez hurren. Lursailen balio-gehikuntzaren gaineko zergaren igoera aipagarria 397.854 euro egiten duten zenbait ordainagiriri dagokio, sustatzaile baten etxebizitzaren esku-aldaketa dela eta.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain-altuan kokatzen dira, ondoko taula honetan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,33	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	3,2 - 3,4	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	14	8 - 20 bitartean
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Diru-sarrereren aurrekontuko kontusailen lagin batekin egindako azterketa ikusita, aipatu nahi dugu ez direla gaurkotzen tasak eta prezio publikoak ezartzeko oinarri diren kostu-azterlanak. Hala ere, kontabilitate analitikoa ezartzeko lanei ekin zaie.

Gure gomendioa da tasa eta prezio publikoek jasaten dituzten kostuei buruzko azterlanak gaurkotzea.

VI.7. HIRIGINTZA

Atarrabiako Udalak ez du organo berezirik edo erakunde instrumentalik osatu hirigintzaren kudeaketarako. Administrazio-zerbitzu orokorren bitartez kudeatzen da.

Alor horretan laguntzeko, Udalak arkitekto baten, ingurumen-aholkularitza baten eta ingeniari baten zerbitzu profesionalak ditu kontratatuta. Kontratu horiek 2014an 33.530 euroko gastua ekarri dute, aurreko urtekoaren parekoa.

Atarrabiako Udalaren Antolamendu Plana 1996an onetsi zen. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko. Udalak, gaur arte, izapideak hasi ditu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko, plan orokor berri bat egiteari dagokionez. Plan hori izan ere, 2007ko maiatzean egin zen, baina 2014an onetsi gabe zegoen. 2015eko maiatzaren 14an eman zaio hasierako onspena.

Ganbera honek nabarmendu nahi du luze jotzen ari dela hirigintza-planeamendu berria taxutu eta onesteko prozesua, nahiz eta tresna hori funtsezkoa izan udal plangintza eta kudeaketa ego-kietarako.

Udalak ez dauka Lurzoruaren Udal Ondarearen ez inbentariarik ez erregistro berariazkorik ere.

Hona gure gomendioak:

- *Udalaren hirigintzako plan berri bat onartzea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Legean aurreikusten dena betez.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas